

## EUSKARA IKASTEKO DIRULAGUNTZAK ARAUTZEN DITUZTEN OINARRIAK

### 1. Xedea

Zuiako Udalak bertan erroldatutako jendeari 2021ean eman beharreko diru-laguntzak arautzea du helburu deialdi honek; diru-laguntza horiek jarraian adierazten den edozein ikasketa egiteko dira.

– Euskaltegietan edo HABEk homologatuetako zentroetan egindako ikastaroak (2020ko urriaren 1etik 2021eko irailaren 30era arte).

– Ikastaroak barnetegi homologatuetan, 2021ean.

### 2. Onuradunak

Deialdi honetako diru-laguntzak ondoko baldintzak betetzen dituzten 16 urtetik gorako pertsonentzat dira: Zuiako udalerrian errol-datuta egotea ikastaroa hasi baino urtebete lehenagotik, gutxienez, eta beretan erroldatuta egotea ikastaroa amaitu arte.

### 3. Eskaerak eta aurkeztu beharreko agiriak

Eskaerarekin batera agiri hauek aurkeztu behar dira:

– Ikastaroko matrikula ordaindu delako frogagiria (jatorrizkoa).

– Euskaltegiaren edo barnetegiaren ziurtagiria; bertan, interesdunak egin dituen eta gainditu dituen mailak agertuko dira, bai eta aprobetxamendua eta asistentzia ere; era berean, zentroak emandako orduak eta ikasleak jasotakoak adierazi behar dira.

### 4. Onuradunen betebeharrak

Onuradunek hauexek egin beharko dituzte:

– Diru-laguntza eskatzen duen ikastaroan gutxienez orduen ehuneko 80an izan direla frogatu, ezinezkoa denean izan ezik (arrazoiak azalduta).

– Ikastaroko maila gainditu edo, bestela, ikasketa orduak ondo aprobetxatu direla frogatu.

– Helburu bererako jasotzen diren laguntza eta diru-laguntza guztien berri eman Udalari.

– Udalari helburu bererako beste diru-laguntza edo laguntza batzuk lortu izana jakinaraztea, beste edozein administrazio, erakunde edo entitate publikotatik helburu bererako beste diru-laguntza edo laguntza batzuk eskuratu diren ala ez dioen zinpeko deklarazio baten bitartez. Beste diru-laguntzaren bat eskuratu bada, lortutako zenbatekoa eta administrazio emailea adierazi eta datu horien egiazkotasuna ziurtatzen duen agiria aurkeztu beharko da.

– Zuiako Udalarekiko zerga betebeharrak egunean eduki.

### 5. Eskaerak aurkezteko epealdia

Ikastaroa amaitzen denetik hilabeteko epealdia egongo da eskaerak aurkezteko, udalak emandako ereduaren arabera.

Eskabidea eta dokumentazioa udalaren sarrera-erregistroan entregatuko dira, udalak emandako ereduaren arabera, edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan adierazitako edozein bide erabiliz.

### 6. Balorazio irizpideak

Diru-laguntzak borondatezkoak dira; udalak ez dauka zertan diru-laguntzarik eman.

**7. Eskaerak ebazteko eskumena daukan organoa**

Alkatetzak emango du ebazpena informazio batzordeak bidezko txostena egin ondoren.

**8. Aurrekontuko kreditua eta diru-laguntzaren zenbatekoa**

Deialdi honen babespean ematen diren laguntzak 2021eko ekitaldiko aurrekontuko 335480000 partidaren kredituari, 10.000,00 euroko zenbatekoarekin egotziko zaizkio,.

Diru-laguntzaren gehieneko zenbatekoa ikastaroko matrikularen ehuneko 85 izango da, 600,00 euro urtean gehienez. Barnetegien kasuan ezin dira sartu diru-laguntzan mantenu gastuak ez ostatu gastuak.

Diru-laguntzaren zenbatekoa, bakarrik edo beste diru-laguntza batzuekin batera, ezin da izan ikastaroaren kostua baino gehiago.

**9. Justifikatzea eta ordaintzea**

Eskaera eta eskatutako dokumentazioa aurkeztu ondoren ordainduko da diru-laguntza.

**10. Arauak ez betetzea eta ondorioz diru-laguntza itzuli behar izatea**

Onuradunak diru-laguntza jasotzeko jarri diren baldintzak betetzen ez baditu eta, era berean, aurkeztu beharreko datuak eta agiriak faltsutzen edo gordetzen baditu, kendu egingo da diru-laguntza, eta kasu horretan itzuli egin beharko du jasotako zenbatekoa.

Oinarri hauetan jasotzen ez den orotarako Zuiako Udalaren laguntzak eta diru-laguntzak arautzen dituen ordenantza aplikatuko da.